



3. oinezko ibilbidea Atxurbide

ALTUERA MIN.:	200 m.
ALTUERA MAX.:	780 m.
DESNIBELA:	▼ 632 m. ▲ 625 m.
DISTANTZIA:	15,12 km. tik 11 km. tik
DENBORA:	3 ordu.
ZAILTASUNA:	erroza



3. ATXURBIDE

➤➤ ALDARRETAZPIKOA NEKAZALTURISMOA ~ ARANTZAZUMENDI ~ ATXURBIDE
GAINA ~ LIZARRAGABEA GAINA ~ ALDARRETAZPIKOA NEKAZALTURISMOA



Aparkalekua	Ganadu pasabidea	Trikuharria	Nekazalturismoa/baserria	Gurutzea	Hesia
Hasiera puntua	Bidegurutzea	Pinudia	Pista/Lepoa	Aterpetxea	Amaiera

📍 TOPOGIDA

P. Aparkalekua. Bidarte etxearen eta Laskainzelai etxebizitza atxikien artean dagoen aparkalekuan utziko dugu autoa. Hona heltzeko, Lazkaoitik gatzela eta herri-gunean sartzean eskuinera dagoen lehen sarrera hartuko dugu.

1. Hasiera-puntua. Aldarretazpikoa nekazalturismoaren gainean dagoen pista nagusian emango diogu ibilbideari hasiera. Nekazalturismotik datorrenak pista ezkerrean eginez hartuko du, eta herri-gunetik goazenok berriz, Bidarteko zubia igaro eta eskuinean gora egiten duen pistan gora ekingo dugu 2 km pasa eginez hasiera-puntu honetara heltzeko. Behin puntu honetan gaudela, aurrera jarraitzea baino ez dugu, pistaz kilometro bat egin beharko dugularik.

2. Pista ez. Kilometro hau igarota, eskuinean dagoen galtzada aldapa pikoan igoko dugu, zig-zag eginez belardi pareraino heltzeko.

3. Pinudira. Parean belardia dugula eskuinera egingo dugu pinudian barneratuz. Bide honek ere beste belardi batera garamatza.

4. Belardia. Belardia ezkerretik igaroko dugu, pinudi ondotik, eta bidea jarraituko dugu hurriz, elorri eta abarren itzalean.

5. Abetoeta. Bidea zabaltzean hesia igaro eta eskuinera egiten duen bide zabala jarraituko dugu.

6. Ganadu tramankulua. Ganadua eraentzeko egurrezko tramankulua izango dugu aurrean, eta bertatik igaroz egingo dugu aurrera.

7. Gora. Abelburuen artean aurrera goazela, aska bat igaroko dugu, eta berehala eskuinera eginez Arantzazumendiko pagaditxora igoko gara.

8. Arantzazumendi. Pagaditxo hau garai bateko erromeriak egiteko lekua zen, eta hala diote bertako pago-enbor batean dauden bertsoek. Hemendik PR arrasto zuri horiak jarraituz igoko gara Atxurbidera mugarriz mugarri.

9. Atxurbide. Idiazabal eta Ataun artean kokatzen den mendi gaina da hau, 776 metroko altitueda duena. Egun ehiza-leku modura erabiltzen da, bertan dauden elorrien itzala probestuz. Gainez gain hegoalderantz jarraituko, bidean Urrezuloko harmurea izenez ezagutzen den trikuharria eta Atxurbiko zista igaroz. Modu honetan aurrera eginez, Dorronsorogañe igaroko dugu, Lizarragabea-ko gainera helduz.

10. Lizarragabea. Gain honetatik pistara jaitsiko gara bidea jarraitu ahal izateko.

11. Ezkerrera. Egurrezko pasotik pistara atera ondoren, ezker aldera jaitsiko gara lepora.

12. Lizarragabeako lepoa. Egurrezko pasoa igaro eta eskuinera ekingo dugu (hegoalderantz).

13. Aterpea. Lizarrabeko aterpea aurrean dugula, ezkerrean egingo dugu pinudian sartuz, gurutzearen bila.

14. Gurutzea. Ekaitzetatik babesteko gurutzea ikusi ondoren bidezidorra jarraituko dugu (iparraldera doa gurutzearen mendebaldetik).

15. Pista. Pinuditik ateratzean pista eskuin aldera eginez hartuko dugu.


16. Bordagaztelu. Bordagaztelu baserria aurrez aurre dugula, pista ezker aldera hartuko dugu.

17. Langa. Bidegurutze honetan ezkerreko langa igaroko dugu, eta pista honetan jarraitu gora egin gabe. Aurrerago langaren bat igaro beharko dugu, eta Arantzazumendi ezkerretara utziz ganadu tramankulura helduko gara eskuineko pistatik.

=6. Ganadu tramankulua. Hemendik atzera bidea deseginez amaiera-punturaino joango gara eskuineko pista hartuz.

=1. Amaiera-puntua. Nekazalturismoaren parean gara berrir bueltan. Autoa herri-gunean badugu, bi kilometro eskas gelditzen zaizkigu gure ibilia amaitzeko.

GUNE INTERESGARRIAK



URREZULOKO HARMUREA

Idiazabalgo lurretan kokatzen den trikuharria, kristoren aurretiko 2200 urte ingurukoa litekeena. 1920. urtean Joxemiel Barandiaranek aurkitu zuen, T. Aranzadi eta E. Egurenekin 1923an indusiko zutelarik. Izenari kasu eginda, urre bilatzaileen esku-hartzea eta ehizarako postu moduan emandako erabilera medio, nahikoa desitxuratua. Bertan kokatzen den kondaira batek dioenez, San Juan goizeko lehen eguzkiak jotzen duen lekuan urrea omen dago idi-narru batean gordeta. Urrerik ez, baina gezi-punta eta apaingarriak aurkitu dira bertan.



ATXURBIKO ZISTA

Duela 3800-3500 urte inguruko monumentu hau, pertsona bakarra ehorzteko egina dela dirudi bere neurri txikiagatik. 1996an indusia, lehena egiaz ez baitzen ezagutzen bertako landaredia eta sedimentazio prozesuak medio. Egoera onean kontserbatu da egitura, baina ez da giza aztarnarik aurkitu bertan.



GURUTZEA

San Gregorioko eliztarrek ekaitzetatik babesteko jarritako gurutzea. 1932an jarri zena egurrezkoa zen, gerora aldatu delarik. Pinudi berean aurrera eginez ehiza-postuak bata bestearen atzetik usok noiz pasako zain.